

Ingurumen Politika

ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREA

Arabako Osasun Mentaleko Sarean, jabetzen gara ingurumena zaintzeko eta babesteko beharraz eta gure jarduerak ingurumenean izan dezaketen eraginaz.

Horregatik guztiagatik erabaki dugu UNE-EN ISO 14.001 araua oinarri duen ingurumen-kudeaketako sistemarekin jarraitzea, konpromiso hauek betetzen lagunduko diguna:

- Jarduerari aplikatzekoa izan litekeen ingurumen-legedia betetzea, baita gure borondatez onartzen dugun bestelako eskakizun oro ere.
- Ingurumena babestea eta kutsadura prebenitzea.
- Gure jarduera gauzatzeko behar ditugun baliabide naturalak zentzuz kudeatzea eta erabiltzea, baita biodibertsitatea eta ekosistemak babestea ere.
- Gure langileak inplikatu eta sentzibilizatzea. Maila guztietan trebakuntza, gaitasuna, motibazioa eta ardurak ematea, gure ingurumen-helburuak lortzeko.

Ingurumen-politika hori Arabako Osasun Mentaleko Sarearen maila guztietan argitaratu eta zabalduko da, eta alde interesdun guztietan egongo da eskuragarri.

Hori guztia bete ahal izateko, kudeaketa-sistemaren eraginkortasuna etengabe hobetzeko konpromisoa hartzen dugu, gure erakundearen ingurumen-jarduna hobetzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko azaroaren 15ean.

